

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 46/2020 Erabakia, otsailaren 4koa. Onestea Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak Arabako Lurralde Historikoan jaiotzak suspertzeko norgehiagoka bidez 2019ko ekitaldian emango dituen dirulaguntzen deialdia

2019ko urtarrilaren 16ko osoko bilkuran, Arabako Batzar Nagusiek Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko 33/2013 Foru Araua aldatzen duen 1/2019 Foru Araua onetsi zuten, eta pertsona fisikoen gaineko zergarako hainbat zerga neurri proposatu zituzten, besteak beste, jaiotzen aldekoak.

Horrela, familien zerga sistema hobetzeko eta jaiotzak sustatzeko, zuzeneko dirulaguntza le-
rro bat ezarri zen; horren bidez 1.000,00 euro emango zaizkie familia unitateei jaiotza bakoitzeko,
baldin eta Arabako Lurralde Historikoan urtebete baino gehiago bizitzen badaramate eta urtean
40.000,00 eurotik beherako diru sarrera gordinak badauzkate. Arabako Lurralde Historikoan
urtebete baino gehiago bizi izan diren eta 40.000,00 eta 75.000,00 euro bitarteko urteko diru
sarrera gordinak dituzten familia unitateentzako laguntza 500,00 eurokoa izango da jaiotza
bakoitzeko. Urtean 75.000,00 eurotik gorako diru sarrera gordinak dituzten familiek, berriz,
250,00 jasoko dituzte ume bakoitzeko, eta dirulaguntza hori bateragarria izango da seme-alabak
edukitzeagatik aplikatzen diren gainerako kenkariekin.

Arau agindua betetzeko, Gizarte Zerbitzuen Saila zenaren (gaur egun, Gizarte Politiken Saila)
martxoaren 5eko 52/2019 Foru Aginduaren bidez Arabako Lurralde Historikoan bizi diren familia
unitateei jaiotzak direla eta zuzeneko dirulaguntza emateko oinarri arautzaileak onesten dituen
foru dekretuaren proiektua egiteko prozedura hasi zen.

Geroago, arauaren testuaren proposamena idatzita, Diputatu Nagusiaren azaroaren 6ko
446/2019 Foru Dekretuaren bidez Arabako Lurralde Historikoan bizi diren familia unitateei
jaiotzak direla eta zuzeneko dirulaguntza emateko oinarri arautzaileak onesten dituen foru
dekretuaren proiektuaren aurretiko onespenez izapidea bete zen.

Azkenik, Gobernu Kontseiluaren azaroaren 26ko 53/2019 Foru Dekretuaren bidez (ALHAO,
138. zk., 2019ko azaroaren 29koa) Arabako Lurralde Historikoan jaiotza tasa sustatzeko laguntzen
oinarri arautzaileak onetsi ziren.

Oinarri horiek onetsi ondoren, orain 2019ko ekitaldiko laguntzen deialdiaren izapideak egin
behar dira, onetsi ahal izateko.

Arabako Foru Aldundiaren aurrekontuan ez dagoenez zuzkidurarik onetsiko den deialdiak
2020ko ekitaldian eragingo dituen gastuei aurre egiteko, izapideei ekin zaie, baina ezarrita ezin-
bestekoa dela kreditu egokia eta nahikoa egotea. Kreditua 2019ko ekitaldiko aurrekontua likidatu
ondoren sortuko da kreditu gaikuntza baten bidez, baldin eta aurrekontuaren egonkortasunaren
printzipioa eta defizit publikoaren printzipioa betetzen badira.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak eta Gizarte Politiken Saileko
diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia
aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehena. Arabako Lurralde Historikoan jaiotza tasa sustatzeko asmoarekin lehia askearen araubidean emango diren laguntzen 2019ko ekitaldiko deialdia onestea. Erabaki honen eranskinean dago.

Bigarrena. Deialdi honetan honako hauek aplikatuko dira: Gobernu Kontseiluaren azaroaren 26ko 53/2019 Foru Dekretuaren bidez onetsitako oinarri arautzaileak eta erabaki honen I. eranskina.

Hirugarrena. Erabaki honek arautzen dituen dirulaguntzak 2020ko aurrekontuan berariaz ezarriko den partidaren kargura ordainduko dira. Laguntzak ordaintzeko ezinbestekoa izango da kreditu egokia eta nahikoa egotea Arabako Foru Aldundiaren ekitaldi horretako aurrekontuan.

Laugarrena. Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 27ko 840/2019 Erabakiaren bidez onetsitako Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren eranskina aldatzea, ebazpen honen II. eranskina txertatuta.

Bosgarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du. Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikularekin bat etorritik, beraren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Foru Gobernu Kontseiluari ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik hilabete pasatu baino lehen; bestela, zuzenean aurkaratu ahal izango da administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera bi hilabete pasatu baino lehen, eskumenak dauzkan jurisdikzioan.

Seigarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da, eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra.

Gasteiz, 2020ko otsailaren 4a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu diputatua

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Gizarte Politiken diputatua

EMILIO SOLA BALLOJERA

Ogasun zuzendaria

TERESA VIGURI MARTÍNEZ

Gizarte Zerbitzuen zuzendaria

ANA BELÉN OTERO MIGUÉLEZ

I. ERANSKINA

DEIALDIA, OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILAK ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAN JAIOTZA TASA SUSTATZEKO ASMOAREKIN LEHIA ASKEAREN ARAUBIDEAN 2019KO EKITALDIRAKO EMANGO DITUEN LAGUNTZENA

Lehenengoa. Xedea

Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 26ko 53/2019 Foru Dekretuaren bidez (ALHAO, 138. zk., 2019ko azaroaren 29koa) onetsitako oinarri arautzaileekin bat etorritik, Arabako Lurralde Historikoan jaiotza tasa sustatzeko laguntzen 2019ko deialdi publikoa irekitzen da.

Bigarrena. Dirulaguntzak emateko araubidea

Dirulaguntza hauek lehia askearen araubidean emango dira. Funtsak kreditu baliagarria amaitu arte banatuko dira, eskaerak (behar bezala beteta) aurkezten diren egunaren eta orduaren arabera lehentasun ordenari jarraituz.

Hirugarrena. Gehieneko zenbatekoa, guztira

Deialdi honen hasierako zuzkidura 1.000.000,00 euroko a da; diru kopuru hori Arabako Foru Aldundiak 2020ko ekitaldiko aurrekontuan horretarako berariaz ezartzen duen partidaren kargura ordainduko da.

Deialdiari esleitutako hasierako zenbatekoa ehuneko 150 gehitu ahal izango da gehienez; horixe da deialdiko kopuruak izan dezakeen gehieneko gehikuntza, urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzenak, 21. artikuluan xedatzen duenarekin bat etorritik.

Deialdi hau gauzatuko bada, ezinbestekoa izango da kreditu egokia eta nahikoa egotea Arabako Foru Aldundiaren 2020ko ekitaldiko aurrekontuan.

Laugarrena. Dirulaguntzarako onartuko den egoera

Dirulaguntza emateko onartuko den egoera honako hau da: 2019ko urtarrilaren 1etik 2019ko abenduaren 31ra bitartean (biak barne) semea edo alaba jaio izana.

Bosgarrena. Pertsona onuradunak

1. Honako hauek jaso dezakete deialdi honetako dirulaguntza: laguntzaren xede den subjektua jaio baino urtebete lehenagotik gutxienez Arabako Lurralde Historikoan bizi diren familia unitateek, deialdi hau arautzen duten oinarrien 5. artikuluan ezartzen duenarekin bat etorritik.

Hori dela eta, laguntza jasotzeko eskubidea ematen duen subjektua ez familia unitateko beste kide guztiak Arabako Lurralde Historikoan bizi behar dira eta bertako udalerrri batean egon behar dira errolatuta hura jaio baino urtebete lehenagotik gutxienez.

2. Urteko sarrera gordinetan honako hauek sartzen dira:

- Lanaren etekin osoak.
- Jarduera ekonomikoen etekin osoak.
- Kapitalaren etekin osoak.
- Ekitaldian gertatutako ondareko irabaziak eta galerak beren artean integratuta eta konpentsatuta sortzen den saldoa.
- Salbuetsitako errentak.
- Errenten egozpena.

Hori guztia bat dator Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak ezartzen duenarekin.

Urteko sarrera gordinak zehazteko kontuan hartuko den data 2018ko ekitaldiko izango da.

3. Onuraduna izan ahal izateko, behar gainerako legezko baldintzak betetzeaz gainera, egunean eduki beharko dira zerga betebeharrak, bai laguntza emateko ebazpena eman aurretik, bai dirulaguntza ordaintzean, hurrengo artikuluan ezartzen den bezala.

Seigarrena. Eskaerak noiz eta nola aurkeztu

1. Eskaerak aurkezteko epea: 2020ko otsailaren 10eko 9:00etatik martxoaren 10eko 14:00ak arte.

2. Eskaerak, ahal dela, baliabide elektronikoak erabiliz aurkeztuko dira Arabako Foru Aldundiaren Egoitza Elektronikoa (<https://web.araba.eus/eu/egoitza-elektronikoa>); horretarako, eskatzaileek sartzeko ziurtagiri digitala eduki behar dute aldeaz aurretik. Egoitza Elektronikoa sartzeko bideak zeintzuk diren eta entitate ziurtatzaile batek jaulkitako ziurtagiri elektronikoa non eskatu behar den jakiteko, jo NOLA SARTU izeneko atalera.

Halaber, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Erregistro Orokorrean (Jesusen Zerbitzariak kalea 5, 01001 Gasteiz) ere aurkez daitezke, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 16.4 artikuluan ezartzen duena gorabehera.

3. Familia unitate bakoitzak eskaera bat bakarrik aurkez dezake.

4. Eskaeran familia unitatearen ordezkari bat bakarrik izendatu behar da.

5. Eskatzaileak osorik bete behar du Arabako Foru Aldundiaren Egoitza Elektronikoa dagoen inprimakia, hau da, eskatzen den informazio guztia eman behar du.

Eskaera paperean eginez gero, deialdi honi erantsitako eredu osorik bete behar da, eta berarekin batera ordezkari izendatutako pertsonaren NAN, AIZ edo pasaportearen fotokopia aurkeztu behar da.

6. Dirulaguntza eskaera aurkezteak berekin ekarriko du eskatzaileak baimena ematea organo izapidetzaileak zuzenean eskuratu ahal izateko deialdi honen bosgarren artikuluan aipatzen den inguruabar guztiak gertatzen direla frogatzen duten dokumentuak.

Eskatzaileak ez badu nahi organo izapidetzaileak deialdian ezartzen diren baldintzak betetzen direla frogatzen duten dokumentuak eskuratzea, honako dokumentu hauek aurkeztu behar ditu eskaerarekin batera:

- Familia unitateko kideen errolda ziurtagiri historikoa.
- Familia liburua, familia unitatea osatzen duten senar-emazteen —hala badagokio— eta ondorengo datuak biltzen dituen (dirulaguntzarako eskubidea ematen duen pertsonarenak ere bai).
- Behar den kasuetan, izateko bikotea erregistratuta dagoelako ziurtagiria.
- Familia unitateko pertsona guztiak barnean hartzen dituen PFEZaren 2018ko ekitaldiko aitorpena.
- Behar den kasuetan, familia unitateko kideen eredu.
- Zerga betebeharrak egunean daudela adierazten duen ziurtagiria.

Otsailaren 11ko 18/1997 Foru Dekretuak, 58/2004 Foru Dekretuak aldatzen duenak, xedatzen duenarekin bat etorritik, laguntza jasotzen duten pertsonak ez daukate zertan frogatu Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak bete dituztela.

7. Organo izapidetzaileak beretzat gordetzen du laguntzak ondo kudeatzeko behar diren dokumentu osagarri guztiak eskatzeko eskubidea.

8. Eskaerak eta berarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioak ez badituzte betetzen oinarri hauetan ezartzen diren baldintza guztiak, edo haien edukia ez bada behar bezalakoa, eskatzaileari errekerimendua bidaliko zaio hamar eguneko epealdian falta dena aurkezteko edo akatsak zuzentzeko, eta azalduko zaio ezen, eskatutakoa egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela pentsatuko dela.

Zazpigarrena. Laguntzen zenbatekoa

Deialdi honen oinarrien 7. artikuluan ezartzen denarekin bat etorriz, familia unitate bakoitzak jaiotzako jaso dezakeen dirulaguntzaren zenbatekoa honako hau izango da:

- Familia unitatearen urteko sarrera gordinak 40.000,00 eurotik beherakoak badira, laguntza 1.000,00 euro izango da jaiotzako.
- Familia unitatearen urteko sarrera gordinak 40.000,00 eta 75.000,00 euro bitartekoak badira, laguntza 500,00 euro izango da jaiotzako.
- Familia unitatearen urteko sarrera gordinak 75.000,00 eurotik gorakoak badira, laguntza 250,00 euro izango da jaiotzako.

Zortzigarrena. Eskaerak izapidetzea eta ebatzea

1. Prozedura izapidetzeko eskumena daukan organoa Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea da. Honek izapide egokiak egingo ditu ebazpen proposamenak, behar bezala arrazoituak, ebatzeko eskumena daukan organoari helarazteko.

Azaroaren 17ko 11/2016 Foru Arauak 22. artikuluan ezartzen duenaren arabera, organo izapidetzaileak ofizioz egin behar ditu ebazpenerako behar diren datuak zehazteko, ezagutzeko eta egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen dituen jarduketa guztiak. Honako eskumen hauek edukiko ditu, batik bat:

a) Ebazteko beharrezkotzat jotzen dituen txosten guztiak eta dirulaguntzari buruzko arauetan eskatzen direnak eskatzea.

b) Ebazpen proposamena egitea.

2. Prozedura ebazteko eskumena daukan organoa Gobernu Kontseilua da.

3. Ebazpena arrazoitu egin behar da, eta honako hauek argitu behar ditu:

a) Laguntza ekonomikoa ematea bidezkoa den ala ez.

b) Laguntza ekonomikoaren zenbatekoa.

4. Deialdi bakoitzean laguntza jasotzeko ezartzen baldintza guztiak betetzeak ez dakar berez eta besterik gabe laguntza eskuratzeko eskubidea.

5. Deialdi honen babespean laguntza bat emateak ez dakar berekin hurrengo ekitaldietan antzeko egoerarako laguntza eman behar izatea.

Bederatzigarrena. Ebazteko, jakinarazteko eta ordaintzeko epealdiak

1. Garaiz eta behar bezala aurkeztutako eskaerak, eskatutako dokumentu guztiak erantsita dituztenak, gehienez ere hiru hilabete pasatu baino lehen ebatzi behar dira, aurkezten direnetik zenbatuta. Epealdi horretan ez da kontuan hartuko espedientea eskatzaileari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik etenda dagoen denbora.

2. Ebazteko gehieneko epealdian ez bada ematen berariazko ebazpenik, dirulaguntza eskaera ezetsi dela ulertu beharko da, 39/2015 Legeak, herri administrazioen administrazio prozedura erkidearenak, 24.1.a) artikuluan ezartzen duenarekin bat etorriz.

3. Hainbat ebazpen eman ahal izango dira jasotzen diren dirulaguntza eskaerei buruz.

4. Dirulaguntza dena batera ordainduko da.

5. 39/2015 Legearen 40 - 46 bitarteko artikuluetan ezartzen denarekin bat etorritz jakinaraziko zaio eskatzaileari laguntza ematen edo ukatzen duen ebazpena.

6. Ebazpenaren aurka errekurtsoa aurkeztu ahal izango da 39/2015 Legeak 121 - 126 bitarteko artikuluetan xedatzen duenarekin bat etorritz.

Hamargarrena. Garapena

Ogasun eta Aurrekontu Saileko foru diputatuari ahalmena ematen zaio deialdi hau zuzen garatzeko, aplikatzeko eta interpretatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Hamaikagarrena. Araubide juridikoa

Deialdi honetan ezartzen den oinarritzko prozeduran Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 26ko 53/2019 Foru Dekretuaren bidez onetsitako oinarri arautzaileak aplikatuko dira, baldin eta urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzenak, ezartzen duenaren aurka ez badaude.

II. ERANSKINA

Dirulaguntza lerroa: Arabako Lurralde Historikoan bizi diren familia unitateentzako laguntzak jaiotzak direla eta.

Ardatz estrategikoa: Giza garapena eta gizarte kohesioa.

Saila: Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila eta Gizarte Politiketako Saila.

Aurrekontu partida: Zehaztu gabe.

2020	2021	2022	GUZTIRA
1.000.000,00			1.000.000,00

Dirulaguntzaren xedea: Arabako Lurralde Historikoan jaiotza tasa sustatzeko laguntzak; zuzeneko laguntzak emango zaizkie Arabako Lurralde Historikoan bizi diren familia unitateetako zergadunei semea edo alaba jaiotzeagatik.

Onuradunak: Arabako Lurralde Historikoan bizi diren familia unitateak.

Emateko prozedura: Lehia askea.

Dirulaguntzaren oinarritzko lerroak: 2019an umea jaiotzeagatik emango da dirulaguntza.

Onuradun bakoitzari umearen jaiotza dela eta emango zaion dirulaguntzaren zenbatekoa honako hau da:


Familia unitatearen urteko sarrera gordinak 40.000,00 eurotik beherakoak badira, laguntza 1.000,00 eurokoa izango da jaiotzako.

Familia unitatearen urteko sarrera gordinak 40.000,00 eta 75.000,00 euro bitartekoak badira, laguntza 500,00 eurokoa izango da jaiotzako.

Familia unitatearen urteko sarrera gordinak 75.000,00 eurotik gorakoak badira, laguntza 250,00 euro izango da jaiotzako.

Baterako finantzaketa:

Jarraipen erregimena eta adierazleak: Dirulaguntza jasotzen duten familia unitateen kopurua/ urteko jaiotzen kopurua.

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p>Arabako Lurralde Historikoan jaiotza tasa sustatzeko emango diren 2019rako laguntzen eskaerak</p> <p>Solicitud de ayudas destinadas a incentivar la natalidad del Territorio Histórico de Álava para el ejercicio 2019</p>
---	--

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila
y Gizarte Politiken Saila

Departamento de Hacienda Finanzas y Presupuestos
y Departamento de Políticas Sociales

1. Laguntza jasotzeko eskubidea ematen duen ondorengoaren datuak

Datos de la persona descendiente que da derecho a la ayuda

Izen-abizenak ■ Nombre y apellidos	Jaioteguna ■ Fecha de nacimiento
------------------------------------	----------------------------------

2. Familia unitatearen ordezkariaren datuak (1. GURASOA)

Datos de la persona representante de la unidad familiar (PROGENITOR/A 1)

Izen-abizenak ■ Nombre y apellidos	NAN-AIZ-pasaportea ■ DNI-NIE-Pasaporte
------------------------------------	--

3. Egoitza, jakinarazpenetarako

Domicilio a efectos de notificación

Kalea ■ Calle		Zk. ■ N.º	Solairua ■ Piso	Letra ■ Letra
Udalerría ■ Población	P.K. ■ C.P.	Herria ■ Municipio		
E-maila ■ E-mail	Telefonoa ■ Teléfono	Hizkuntza ■ Idioma de comunicación: <input type="checkbox"/> Euskara ■ Euskera <input type="checkbox"/> Gaztelania ■ Castellano		

4. Familia unitatea osatzen duten pertsonen datuak (laguntza jasotzeko eskubidea ematen duen pertsona ez beste guztiak)

Datos de las personas que componen la unidad familiar (excluida la persona que da derecho a la ayuda)

2. GURASOA (behar denean) ■ PROGENITOR/A 2 (en su caso)

Izen-abizenak ■ Nombre y apellidos	NAN-AIZ-pasaportea ■ DNI-NIE-Pasaporte
------------------------------------	--

Familia unitateko kide diren ondorengoak

Personas descendientes que forman parte de la unidad familiar

Izen-abizenak ■ Nombre y apellidos	NAN-AIZ-pasaportea ■ DNI-NIE-Pasaporte	Jaioteguna ■ Fecha de nacimiento
Izen-abizenak ■ Nombre y apellidos	NAN-AIZ-pasaportea ■ DNI-NIE-Pasaporte	Jaioteguna ■ Fecha de nacimiento
Izen-abizenak ■ Nombre y apellidos	NAN-AIZ-pasaportea ■ DNI-NIE-Pasaporte	Jaioteguna ■ Fecha de nacimiento

5. Bankuko datuak, laguntza ordaintzeko ■ Datos bancarios a efectos del pago

IBAN
Kontuaren titularra ■ Titular de la cuenta bancaria



Arabako Lurralde Historikoan jaiotza tasa sustatzeko emango diren 2019rako laguntzen eskaerak
Solicitud de ayudas destinadas a incentivar la natalidad del territorio histórico de Álava para el ejercicio 2019

GOFEK izapidea ebazteko beharrezkoak diren datuak kontsultatuko ditu, deialdiaren oinarrian jasotakoak. Errolda, ezkontza, izatezko bikoteen erregistroa, jaiotza, zerga betebeharrak eta PFEZ datuak kontsultatuko dira.

El IFBS consultará los datos pertinentes para la resolución del trámite, recogidos en la base de la convocatoria. Se consultarán los datos del padrón, matrimonio, registro de parejas de hecho, nacimiento, obligaciones tributarias e IRPF.

Ez diot baimenduko beste administrazio publiko batzuei nire datuen kontsultarik egitea

No autorizo la consulta de mis datos a otras Administraciones públicas

Aurka egonez gero, eskaerarekin batera honako dokumentu hauek aurkeztu behar dira:

1. Familia unitateko kideen errolda ziurtagiri historikoa.
2. Familia liburua, familia unitatea osatzen duten senar-emazteen —hala badagokio— eta ondorengo datuak biltzen dituen (dirulaguntzarako eskubidea ematen duen pertsonarenak ere bai).
3. Behar den kasuetan, izatezko bikotea erregistratuta dagoelako ziurtagiria.
4. Familia unitateko kide guztien PFEZen 2018ko ekitaldiko aitortpenak.
5. Behar denean, familia unitateko kideen ereduak.
6. Zerga betebeharrak egunean daudela adierazten duen ziurtagiria.

En caso de oposición se deberá adjuntar junto con la solicitud la siguiente documentación:

1. Certificado histórico de padrón de las personas que componen la unidad familiar.
2. Libro de familia donde consten los datos del matrimonio, en su caso, y de los descendientes que forman parte de la unidad familiar incluida la persona que da derecho a la subvención.
3. Certificado del Registro de parejas de hecho, en su caso.
4. Declaración de IRPF correspondiente al ejercicio 2018 que incluya a todas las personas que componen la unidad familiar.
5. Modelo de composición de unidad familiar, en su caso.
6. Certificado de estar al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias.

Nik, (e)k,
(izena eta bi abizen)

(NAN/AIZ/pasaportea:),
 FAMILIA UNITATEAREN ordezkaria naizen aldetik, NEURE ERANTZUKIZUNPEAN ADIERAZTEN DUT bete egiten ditudala indarreko arautegiaren arabera laguntza hauen onuraduna izateko eskatzen diren baldintzak.

YO,
(nombre y dos apellidos)

con DNI/NIE/pasaporte
 como persona representante de la UNIDAD FAMILIAR, DECLARO RESPONSABLEMENTE que la misma cumple los requisitos exigidos en la normativa vigente para ser beneficiaria de estas ayudas.

Eskatzailearen sinadura ■ Firma de la persona solicitante

DATUAK BABESTEARI BURUZKO OHARRA

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) ezarritakoa betetzeko, jakinarazten dizugu emango dizkiguzun datuak GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEAREN TITULARTASUNEN JAIOTZA-TASA SUSTATZEKO LAGUNTZAK izeneko tratamendu-jardueran sartuko direla, eta horiek LAGUNTZA HONEKIN LOTUTAKO ESPEDIENTEAK IZAPIDETZEKO ETA EBAZTEKO ERABILTZEN DIRELA.

Haien datuen konfidentialtasuna bermatzen dugu, eta ez diegu hirugarren pertsonari jakinarazten legez gaitutako kasuetatik kanpo.

Aipatutako Erregelamenduak aitortzen dituen datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeke, aurka egiteko eta mugatzeko eskubideak erabili ahal izango dituzu, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen egoitzara joz (San Prudentzio kalea 30, 01005 Vitoria-Gasteiz, Araba).

AVISO LEGAL. PROTECCIÓN DE DATOS

Con objeto de dar cumplimiento a lo establecido en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 (Reglamento General de Protección de Datos), le informamos que los datos que nos facilita van a ser incluidos en la actividad de tratamiento denominada AYUDAS PARA INCENTIVAR LA NATALIDAD titularidad del INSTITUTO FORAL DE BIENESTAR SOCIAL cuyos tratamientos se realizan para la TRAMITACIÓN Y RESOLUCIÓN DE LOS DIFERENTES EXPEDIENTES RELACIONADAS CON ESTA AYUDA.

Garantizamos la confidencialidad de sus datos, no siendo comunicados a terceras personas fuera de los supuestos habilitados legalmente.

Usted podrá ejercitar sus derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición y limitación que reconoce el citado Reglamento dirigiéndose a la sede del Instituto Foral de Bienestar Social (C/ San Prudentzio 30, 01005, Vitoria-Gasteiz, Álava).